

## Intxaurreondo



## Ura bizilagun

Baratzategi kaleko 1 eta 2 atarietako bizilagunek pankartak jarri dituzte balkoietan, etxebizitzak eraiki zituztenetik itoginak eta hezetasuna dutela salatze-ko. Eraikina konpontzeko lanak laster has litezke.

**D** Gladis Villalba uela zazpi urte egin zituzten Baratzategi kaleko 1 eta 2 zenbakietako

etxebizitzok, eta handik gutxira hasi ziren bizilagunak kexatzen. Izan ere, euria zenean ura etxebizitzaren barrualdera

sartzen zen, eta hezetasunaren ondorioz, orbanak atera ohi ziren paretetan. Bertako bizilagun Imanol Aristizabalek azaldu digunez, "hasieran, etxebizitzak berak langile bat bidali ohi zuen zirrikituak silikonaz estaltzeko, baina horrek ez zion arazoari behin betiko irtenbiderik eman". Eraikitzaileak hartutako neurriak nahiko ez zirela ikusita, Baratzategi kaleko bizilagunek Eusko Jaurlaritzara jo eta bertan salaketa jarri zuten. Eraikuntzaz arduratu zen enpresak zigorra jaso zuen, baina helegitea aurkeztu eta zigor hori ezerezean geratu zen.

### Auzitegira

Bizilagunek, baina, ez zuten amore eman eta auzitegietara jo zuten. Adituak eginiko txostena aztertu ondoren, epaileak bizilagunei arrazoia eman zien. Epaileak erabaki zuen eraikina konpondu beharra zegoela eta hori eraikitzaileak bere gain hartu behar zuela. Bizilagunon zorionerako, auzi honen amaiera gertu egon liteke. Izan ere, abokatuak bizilagunei jakinarazi die obrak aste gutxiren buruan hasi behar dituztela, eta hiru hilabete iraungo dutela. Kontuak kontu, urte hauetan gutxietan, arazoak areagotu egin dira. Itoginak daude, hezetasunaren eraginez paretetako pintura zatiak erortzen ari dira eta etxebizitzaren batean hormigoizko habeak agerian geratu direla nabarmendu digu Imanol Aristizabalek.

### Takolo, Pirritx eta Porrotx

Plazara Goaz Intxaurreondoko euskara batzordearen ekimenez Takolo Pirritx eta Porrotx Ategorrieta eskolan izango dira abenduaren 14an, igandea. Palazioak emanaldi eskaintza dituzte 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak aldeztuak iratetik egongo dira salgai, auzoko ikastetxeetan eta Toba eta Erdikoa tabernetan. Prezioa: 800 euro.

# LEHIAKETA

Hamar sarrera ditugu Faltriqueira boskote galiziarraren kontzertua ikusteko. Emanaldia hilaren 9an, asteartea, izango da Egia kultur etxean, 20.30ean. Sarrerak eskuratzeko, astelehenean, hilak 1, 943467181 telefono zenbakira deitu beharra dago 12.00etan.

Joan den asteko irabazleak: "Betizu izar artean" haurrentzako filma

